

# ELORRIKO UDALEKO GOBERNU-BATZORDEAREN GOBERNU ONAREN KODEA

## Hitzaurrea

Udalen gaur egungo antolaketan, Tokiko Gobernu Batzordea organo erabakigarria da udal-politiken ezarpenean. Tokiko Gobernu Batzordean udaleko jarduera-eremu desberdinen ardura duten zinegotziak biltzen dira eta organo horrek topagunetzat, debaterako nahiz udal-jarduera erabakitzeko balio du horrek Elorrioko bizilagunen ongizatean duen eraginarekin.

Tokiko Gobernu Batzordea, Alkatearen edo, bere kasuan, Osoko Bilkuraren eskumen eskuordetuak egikaritzuz, udalean izaera betearazle eta zerbitzu-eskaintzailea duen organo kolegiatua garrantzitsuena da. Osoko Bilkurak, aukeratutako udal-kide guztiek osatzen duten organoak, bestalde, gobernu-taldearen jarduera sustatzeko, kontrolatzeko eta fiskalizatzeko zeregin funtsezkoak egikaritzen ditu, baita, izaera orokorreko xedapenak egin ere.

Gure gizarte demokratiko honetan, administrazio publikoari bere funtzionamendua gobernu onaren irizpideetara eta arauetara egokitzeko eskatzea guztiz galdagarria da. Zentzu horretan, Ordezkarri hautetsien Etikarako Europako Jokabide-Kodeak, Europako Kontseiluko Tokiko eta Eskualdeko Botereen Kongresuan onartuak, tokiko ordezkarietarako jokabide-kodeak onartzea defendatzen du politikarien eta hiritarren artean konfiantza sortzea ahalbidetuko duen tresnatzat. Ezinbestekoa izango da beren funtzioak egikaritu behar dituztenek modu eraginkorrean egikaritu ditzaten; izan ere, hautesleriak agintaldiarekiko duen errespetua hertsiki lotuta dago arau etiko jakin batzuekiko errespetuarekin.

Udalen kudeaketan tokiko ordezkariak dituzten zereginak, funtsezkoa sistema demokratikoak funtziona dezan hiritarrekiko duen hurbiltasunagatik, arduraz, gizartea zerbitzatzeko borondatez, gardentasunez, eraginkortasunez eta funtzio publikoak dedikazio osoz betez egikaritu behar dira.

Printzipio horiek udal-gobernu on baterako gidatzen balio izatea nahi da eta, baita, administrazioa hiritarregana hurbiltzeko ere eta zinegotzi hautetsien jarduera ekintza publikoaren eredu izatea ere.

## 1.-Xedea.

Agiri honek Elorrioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen gobernu onaren printzipioak finkatzea du xede.

## 2.- Gobernu onaren printzipioak.

1. Gobernu Batzordea eta bere kideak aplikagarri den jarduera kolegiatuetan eta banakoetan kode honetan jasotzen diren gobernu onaren printzipio orokorren bidez eraenduko dira.

2. Gobernu onaren printzipio orokor hauek finkatzen dira:

- Gizarte-balioak eta giza eskubideenganako eta hiritarren askatasunenganako errespetuzkoak jarduera-printzipiotzat hartzea, jaiotze-, arraza-, sexu-, erlijio- eta iritzi-arrazoiengatikoko edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonalengatikoko edo sozialengatikoko diskriminazioa eragin dezakeen jarduera oro saihestuz.
- Ordenamendu juridikoa errespetatuz jardutea eta jarduerak printzipio etikoetara eta objektibotasun, integritate, neutraltasun, erantzukizun, sinesgarritasun, inpartzialtasun, konfidentzialtasun, zerbitzu publikoari dedikazio, gardentasun, eredugarritasun, austeritate, irisgarritasun, eraginkortasun, prestutasun, solidaritate, defentsa jokabideetara eta kultur ingurunearen, gizonetzkoen eta emakumezkoen berdintasunaren, ingurumenaren eta demokrazia parte-hartzailearen sustapenera doitzea.
- Erantzukizun korporatiboen kudeaketan, administrazio erlazionala, elkarrizketatzailea eta hiritarrak eta eragile ekonomikoak eta gizarteeta kultura-eragileak nahastuko eta kontsultatuko dituen sustatuko da horretarako beharrezkoak diren bideak eta bitartekoak erraztuz.
- Erabakiak hartzerakoan, hiritarren interes orokorrak asetzea izango da xedea, interes orokorrera bideratutako oinarrietan funtsatuz, printzipio horrekin talka egin dezaketen jarrera pertsonalak, familiarak, korporatiboak, klientelarrak eta abar adieraz ditzaketenak alde batera utziz.
- Betebehar guztiak eredugarritasunez betetzea; halaber, eredugarritasun horrekin berarekin jardun beharko dute hiritar gisa legeak ezarritako betebeharrak betetzerakoan ere.
- Eskubideak interes orokorraren mesedetan eta fede onaren eta zerbitzu publikoarekiko dedikazio printzipioen arabera egikaritzea, haren aurkakoak diren jokabideak ez-ezik, beren funtzioen egikaritzan neutraltasuna konpromisoan jar dezaketen beste edozein jokabide baztertuz.
- Erantzukizunak eta eskuduntzak arduraz egikaritzea ekintzen eta ez-egiteen ondorioz hirugarrenei sor dakizkiekeen kalte handiak edo itzulezinak eragiteko arriskua txikiagotuz.
- Enplegatu publikoen arteko lankidetzaren estua zaintzea, interes publikoa defendatzea, ordenamendu juridikoa betetzea, zerbitzuen kalitatea, administrazioaren modernizazioa sustatzea, zerbitzuen funtzionamendua hobetzea eta horrela eskatzen duten alderdiak zuzentzea bermatzeko.
- Gainerako agintari politikoen eta tokiko enplegatu publikoen independentzia, eskuduntzak eta eskumenak errespetatzea.
- Eraginkortasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioen arabera jardutea eta, uneoro, interes orokorraren lorpena eta antolakuntzaxedeen betetzea zaintzea.
- Bateriaezintasunari buruzko arauen betetze zorrotzaren eta erabakiak hartzerakoan abstenitzeko beharrezkoen kalterik gabe, administrazioaren objektibotasuna konpromisoan jar dezakeen edozein jardueratan edo interesetan abstenitzea interes orokorren mesedetan.

- Pertsona fisikoek edo erakunde pribatuek eskainitako aldeko traturik edo pribilejioren bat nahiz justifikaziorik gabeko abantailaren bat dakarten egoerak ez onartzea.
- Baliabide publikoak austeritatez administratzea.
- Kargua dela eta administrazioak haren esku jarritako ondasunen eta zerbitzuen erabilera desegokiak saihestea.
- Legeak ezarritako baldintzetan udal-ondarera gehituko diren dohaintzak egitearen kalterik gabe, ohiko gizarte-erabilerak gainditzen dituzten opari garrantzitsuak, konpentsazioak edo beren funtzioak betetzea baldintza dezaketen mesedeak ez onartzea.
- Administrazio-izapideen edo –prozeduren ebazpenean edo arintzean arrazoi zuzenik gabe ez eragitea eta inoiz ez jokabide horrek norberetzat, familiarentzat nahiz berehalako gizarteingurunearentzat pribilegioa dakarrenean edo hirugarrenen interesak kaltetzen dituenean.
- Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunarekiko errespetua sustatzea eta hori zaildu dezaketen oztopoak baztertzea.
- Gauzatutako jardueren erantzukizuna beren gain hartzea eta menpekoengana ez bideratzea horretarako arrazoi objektiborik ez dagoenean.
- Ahalmenak egikaritzeko moduen eta udal-zerbitzuen funtzionamenduaren gardentasuna sendotzeko asmoz jardutea.
- Beren karguaren harian ezagututako datuei edo txostenei dagokienez, isiltasunez, zuhurtasunez eta diskrezioz jokatzeko.
- Publizitate eta komunikazio instituzionala erabiliko dira, Legearen babesean, hiritarrei Udal-Gobernuaren baitan hartutako erabakien berri emateko, onura publikoaren, erakundeen arteko leialtasunaren, objektibitatearen eta erabilera ez alderdikoiaren printzipioei menpekotuta. Hori guztia hiritarren beharren eta interesen zerbitzura zorrozki menpekotuz, beren eskubideen egikaritza erraztuz eta haien betebeharren betearazpena sustatuz, funts publikoen erabilera egokiarekin bat ez datozen xede desegokiak baztertuz.